

Ehunka lagunek egin dute bat Etxeratek deituriko mobilizazioetan

TOLOSALDEA ▶ Euskal presoen egoera salatzeko
Ibarra, Tolosa eta Villabonan izan ziren geldialdiak ▶ 2



Tolosako udaltxe parean elkarretaraztea egin zuten. ESTI EZEIZA



L. GARCIA

‘Aiurri’ aipamen berezia Txomin Garmendiarentzat

TOLOSALDEA ▶ Anjeles Uzkudun, Xabier
Lasa, Aitziber Ibarbia, Iñaki Urkola eta
Kandido Aizpurua ere omendu zituzten ▶ 4

LEITZA ▶

Rekondo, Urrezko Txapelaren bila, gaur

Erasunekin batera
ariko da Azpeitian ▶ 7

PERNANDO BARRENA ▶ BATASUNEKO KIDEA

«Ahalegin kolektibo bat irudikatzea da Amaiursarearen asmoa»

Marian Zestaurekin batera ekitaldi
politikoa egingo du bihar Leitza ▶ 7

LIZARTZA ▶

Garikoitz Etxeberriak 8 egun igaro ditu Mitard disziplinan

Ostegun Gizenean atera zuten
inkomunikazio egoeratik ▶ 6

POLITIKA ▶

Ehunka herritarrek hartu dute parte Etxerat-ek deituriko mobilizazioetan

Geldialdiak eta manifestazioak egin zituzten atzo eguerdian Villabonan, Ibarren eta Tolosan, baita ere, beste herrietako zenbait industrialgunetan

ESTI EZEIZA

Euskal presoek eskubideen alde atzo, 12:00etatik 13:00etara lanuzteak egin zituzten Tolosaldeko hainbat herritan. *Es-kubide guztien jabe, euskal presoak Euskal Herrira* lelopean, eta Etxerat elkarteak egin zuen deialdia, eta «pozik» azaldu zen herritarrek emandako erantzunarekin.

Euskaldekoko mobilizazioei dagokionean, Zizurkilgo eta Tolosako udaletxe aurrean herritar ugari bildu ziren elkarretaratzean. Tolosakoan, langileez gain, Laskoraineko ikasleek ere bat egin zuten, hauek giza kate bat osatuz udaletxea aurrera gerturatu zirelarik 12:15ean, gainontzekoekin elkartzeko. Ibarren, anbulategi



Villabonan manifestazioa egin zuten 100 lagun inguruk kaleetan barna. A. ETXANIZ



Anbulategi aurrean egin zuten elkarretaratzea atzo. E. EZEIZA



Apatia industrialguneko langile batzuk konzentrazioa egin zuten. A. I.

LANUZTEA EGIN DUTEN ENPRESAK ▶

Aduna. Unipapel.
Albiztur. Antalis.
Asteasu. Etxesa eta T. Bost.
Belauntza. Reprocel.
Ibarra. Voith eta Gorostidi.
Ikaztegieta. Lantier.
Irura. Emusi.
Leaburu. Zuhaizki.
Lizartza. Lizartzako Udala eta Aguas de Insalus.
Tolosa. Tolosako Udala, SAM, Laskorain Ikastola, Correos, Pasaban eta Pirritx eta Porrotx pailazoak.
Villabona. Arteka eta Villabonako Udala.
Zizurkil. Zizurkilgo Udala.

aurrean ez ezik, Apatia industrialgunean ere egin zuten elkarretaratzea. Bestetik, Villabonan egindako manifestazioan 100 lagun inguru bildu ziren. Dena den, zenbait lantegitan, eraikinaren aurrean egin zituzten elkarretaratzeak.

Etxeraten gauro deialdiarekin bat egin dute hainbat erakunde: LABek, Segik, EHAK-ek, ezker abertzalearen Udaltzarka eta EHEK, besteak beste. Gaur egun, Askatasunak eman dako datuen arabera, 605 preso politiko daude. Haietatik, 19 baino ez daude Euskal Herriko kartzelatan. Senideek eta lagunek bisitetako joan-etorrietan urtero milioi bat kilometrotik gora egiten dituzte.

Egindako salaketak

Etxeraten esanetan, «Euskal Herria aitortzea, eskubide guztiak errespetatzea, autodeterminazioa eta gure lurraldearen zatiketa gainditzea dira gatazka politikoa konpontzeko giltza eta oinarria». Bestalde, beraien ustetan, «euskal presoek kontratatuak erabiltzen duten espetxe politikak mendekua dauka abiapuntu eta txantaila helburu».

Presoen aldeko kolektiboak azaldutakoaren arabera, euskal presoek bizi arteko zigorra inposatu nahi diete, eta honetarako, «40 urteko kartzelaldiak osorik bete ditzaten aldatu dute kode penala; dotrina berria asmatu dute askatzeko momentua heltzen denean zigorra luzatu ahal izateko» Etxeratekoek emandako datuen arabera, 22 presorekin egin dute jadanik eta 180 gehiagori ezartzeko bidea jorratzen ari dira. Honez gain, gaixotasun larriak dauzkaten presoek askatasuna ukatzen diete. Horren adibide ipintzen dituzte zenbait kasu, «Unai Parotena eta Iñaki de Juanarena, 3 urte eman dizkiotela iritzi artikulua bi idazteagatik».

haur kantari jaialdia 2007

Bakarlariak, bikoteak eta taldeak

martxoaren 17an, larunbatean, 17:00etan
AZKOITIKO Bazartxo Antzokian
martxoaren 31n, larunbatean, 17:00etan
TOLOSako Leidor Antzokian

Izena emateko
azken eguna
martxoaren 9a,
ostirala!

etorri kantatzera!!
Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea
20140 ANDOAIN
Tel.-faxa: 943 59 33 02
posta@kantuzale.net

ARAMBURU
Alokatzeko (Tolosa), Garajeak. Araba etorbidean irekia eta lurren itxia.
Alokatzeko (Tolosa).
Pisua San Frantzisko kalean.
Salgai (Tolosa), Pisua Bizkaia kalean, guztiz eraberritua (Sputnik dorrean).
Salgai (Tolosa), lurre auzoan.
Ofizinarako, klaseak emateko, etab, lokal txikia. Oso modu onean.
Salgai (Tolosa), Lokalak Agintari kalean eta Kale Nagusian.
Salgai, Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarren.
Salgai (Tolosa),
Garajeak, Leidor azpian.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

TOLOSA ▶

Musika Eskolako emanaldia, etzi

Piñata igande honetan, hirugarren urtez, Tolosako Eduardo Mocoeroa Udal Musika Eskolako ikasle talde bat, konpartsa batean parte hartuz, Alde Zaharreko kale-etera aterako da. 11.30ean, hain zuzen ere, 70 ikasle izango dira Brasilgo eta Kubako musika joaz aterako direnak. Ikasle hauen artean, flautak, oboeak, klarinetak, saxoak, tronpak, bonbardinoak, tronpetak, tronboiak eta tubak ditugu. «Ilusio handiz» lan egin ondoren jende aurrean azalduko dira, beraz, eta tolosar guztiak gonbidatzen dituzte ekitaldira.

TOLOSA ▶

Ikastaro berriak Udaleko Gazteria sailaren eskutik

Martxoa, apirila eta maiatza bitartean, ikastaro berriak jarriko ditu martxan Udaleko Gazteria sailak. Txalaparta ikastaroa, Gizarte Trebetasunak, batxata, salsa, merengue ikastaroa, Jende aurrean hitz egiteko tekniken ingurukoa eta gorputz espresioa izango dira eskainiko dituztenak. Ikastaroen kuota 10 eurokoa da, gorputz espresioena eta gizarte trebetasunena izan ezik, hauek doan baitira. Izen emateko, Kultur Etxeko telefono zenbakira (943 670383) deitu edota gazteria@tolosakoudala.net helbidera idatzi beharko da.

GIZARTEA ▶



Ingalaterrako lagunen bisita Hirukiden

Erredakzioa ▶ Pasa den astean bueltatu ziren euren etxeetara zazpi egunez Hirukiden izan ondoren Herefordetik (Ingalaterra) etorritako 12 ikasle eta 2 irakasle. Azken honekin, aurtengo laugarren elkartrukea izan dute, eta denera,

62 lagun izan dira Tolosan. Ikasle hauek guztiak DBHko 3 eta Batxilergoko 1. mailetako ikasleekin etxeetan izan dira. Aurtengo elkartrukeen amaiera datorren ekainean izango da, Hirukideko 60 ikasle Ingalaterrara joango direnean. HITZA

ELKARTASUNA ▶

Eskualdekoen parte-hartzea Sahararen aldeko maratoian

Saharako Errepublika Demokratikoaren urtemuga dela-eta hartuko dute parte Jon Diazek eta Gregorio Eizagirrek

IÑIGO TERRADILLOS

Agerian geratzen da eskualdean sahararrekiko dagoen elkartasuna euren alde antolatzen diren ekimenetan, Sahararen Aldeko Euskal Karabanan —ia 8.000 kilo bildu ziren eskualdean—, esaterako. Oraingoan, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (RASD) sortu zeneko 31. urtemuga ospatzen dela eta zazpigarren urtez egingo dute maratoia, eta bertan parte hartuko duten eskualdeko herritarrak badira. Jon Diaz eta Gregorio Eizagirre, hain zuzen.

Iaz ere hartu zuen parte elkartasun maratoian Jon Diaz tolosarrak eta «esperientzia oso positibo» izan zela ikusita, berritoren errepikatze ez du zalantzarik izan aurtun ere. Gregorio Eizagirre leaburuarraren kasuan, 42 kilometroko ibilbide luzearen ordez, laburragoa egingo du. Aaiundik Smararako maratoiaren eguna astelehenean izango da, baina gaur iritsiko dira bertan parte hartuko duten saharar erre-fuxiatuen kanpamentuetara, maratoiaren gain, hainbat ekitaldi izango baitira hilaren 28ra

arte urteurrenaren aitzakian. Bidaia hau Tolosaldea Sahararekin elkartea laguntzen ari den proiektua gertutik ikusteko ere baliatuko dute, besteak beste. Hain zuzen ere, aisialdi gune bat eraikitzen ari dira parte hartzen.

Bidai honetara joateko Tolosako Udalaren laguntza izan dute biek. Hala, Udal honek bat egingo du hilaren 27an, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren urtemugarekin, eta Mendebaldeko Saharako bandera jarriko du udaletxe bakoian. Horretaz gain, 12:00etan, Emeterio Arrese

plazako lorategietan plaka bat jarriko dute, Tolosaren eta Bir Lehlur saharar herriaren arteko senidetzearen adierazgarri.


Aurrera begira

Elkartea azken ekimenetan parte hartu dutenen laguntza eskertu nahi du, bereziki, Tolosako Udala, Shanti Kirolak, Aralar kirolak, Tolosa FC, Oriako eta Ardilatxa. Bestalde, martxoan ekitaldi ugari antolatze-ko asmoa azaldu dute. Hitzaldiak izango dira Sahararen inguruan astero, eta baita kontzertuak ere, besteen artean.

urteurrena ▶

I. URTEURRENA

Luisa Jauregi Aranburu



Lehen urteurreneko meza BIHAR, IGANDEA, eguerdiko HAMABIETAN izango da, Altzagako Mikel Deunaren parrokian. Elizkizunera joango zaretzoki eskerrik asko sendikoen izenean.

ALTZAGAN, 2007ko otsailaren 24an



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

hilberria ▶

Tiburcio Maritxalar Jauregi

Jauna

Otsailaren 23an hil zen, 65 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—



Bere emaztea: Maitere Aranzabe; seme-alabak: Lurdes eta Axier Aristondo, Felix eta Itziar Jauregi, Arantxa eta Haimar Eskitxabel; biloba: Ilane; gurasoak: Luisa Jauregi (Felix Maritxalar-en alarguna); ezkon gurasoak: Joxe Manuel (†) eta Tiburcia (†); anai-arrebak: Blas, Ignacio eta Pilar, Manuel eta Nieves, Bixente eta Axun, Arantxa eta Jesus, Joxe eta Bixen; ezkon anai-arrebak: Blas, Timoteo (†) eta Joxepa, Esteban eta Kattalin, Domingo, Juan eta Anttoni, Pedro; osaba-izebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitzela GAUR LARUNBATA, arratsaldeko SEIRETAN, Ibarako SAN BARTOLOME parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.


Helbidea: Apaiz-Ereka, 11-4, ezk. oharrak ▶ Gorputz bella Tolosaldeko Funeraria Vascongada Tanatorioan dago. Erosarioa arratsaldeko 17:45tan elizan bertan errezatuko da.

IBARRA, 2007ko otsailaren 24an

hilberria ▶

Antonio Jaular Herrero

Gaur, otsailak 24, hil zela hilabete igaro da



Bere emazteak eta seme-alabek GAUR, larunbata, arratsaldeko 19:00etan SAN FRANTZISKO parroki elizan ospatuko den elizkizunera gonbidatu nahi zaituzte. Aldez aurretik, eskerrik beroenak familiaren partetik.

IBARRA, 2007ko otsailaren 24an

ADUNA ▶

Korrikaren postua sokatira txapelketan

Martxoaren 24an Korrika 15 igaroko da eskualdetik. Hori dela eta, Korrikaren postuak jartzen ari dira zenbit ekitaldietan. Gaur, Adunan Euskal Herriko Sokatira Txapelketaren saio bat jokatu dute herriko pilotalekuan eta 16:30etik aurrera Korrikaren postua jarriko dute plazan.

ALKIZA ▶

Rai Bueno ipuin kontalaria etzi liburutegian

Rai Bueno ipuin kontalariak saioa emango du etzi Alkizako liburutegian. Emanaldia 17:00etan hasiko da.

ALKIZA ▶

Emakumearen Nazioarteko Egunaren afaria

Emakumearen Nazioarteko Eguna martxoaren 8an egiten da. Hori dela-eta afaria antolatu dute Alkizako Otsamendi jatetxean. Martxoaren 10ean egingo dute, larunbata, 21:00etan hasita. Informazio gehiago Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko bulegoetan edo 943 693930 zenbakian.

GIZARTEA ▶

Txomin Garmendiari eman dio 'Aiurri'k ohorezko aipamena

Gizatasun eta kirol arloko aipamen bereziak ere banatu zituen aldizkariak



Aizpurua, Urkola, Ibarbia, Garmendia, Uzkudun eta Lasa, jasotako oroigarriekin. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Aiurri aldizkariak aipamen bereziak banatu zituen herenegun arratsaldean Villabonako Gurea antzokian. Txomin Gar-

mendiari eman zioten «ibilbide oso bat nabarmendu nahi duen» ohorezko aipamena. Merezimendu ugari aipatu zituen Jon Unanuek, Aiurri aldizkaria argitaratzen duen Ma-

nuel Larramendi Bazkuneko lehendakariak. Horien artean, «molde zaharreko bertsolaritzan ontasun era kalitate handiz jardutea Euskal Herriko harmaika plaza eta txokotan».

TXOMIN GARMENDIA ▶ BERTSOLARIA

«Diruak ematen ez duena eman dit bertsolaritzak»

Txomin Garmendiak (Berrobi, 1974), eskerrak emanda, sariarik ez zuela merezi azaldu zuen Gurean botatako bertsoan.

Zer pentsatu zenuen saria eman nahi zizutela jakitean? Lehenengoa eman nuena ezezkoa izan zen. Baina etxera eto-

ri ahala bi lagun, kafetxo bat hartu eta azkenean baiezkoa eman nuen, eta pozik gainera. Esan nien nik ez nuela hainbeste merezi, baina hainbeste saiatu zirenez gero, ontzat hartu beharra zegoela.

Zer eman dizu bertsolaritzak? Bertsolaritzak gauza asko eman dizkit, sos batzuk ere bai bizimoduaren laguntzarako. Horretaz gain, bazterrek eza-gutzea, lagun jatorrak egitea, pasatako egun gozoak —txarrak ere bai—, baina hori ez da diruarekin pagatzen. Bertsolaritzak diruarekin pagatzen ez den zerbait ere eman dit. **Gaur egun nola ikusten duzu bertsolaritza?**



I. GARCIA

Asko aldatu da, bizitza ere aldatzen doa. Eta gaur bertso eskolei esker asko aldatu da. Beste doinu batzuk daude, gaur gehiago lantzen da, gehiago pentsatzen da. Garai batean bertsoa errazago botatzen zen eta gaur gazte askok bertsoa botatzeko ondo pentsatuta botazen dutela. Gu, berri, errezagoko hasten ginen. Betelan pixkat egin eta azkeneko grazia zuen zerbait pentsatuta bagenuen, bada, aurrera.

Eta etorkizuna?

Alde batetik oso osasuntsu, bestetik ez hainbeste. Azkeneko txapelketara jendea milaka joan zen, inoiz ez bezala. Baina herrietako festetan eta bertso saioetan sekula baino jende gutxiago izaten da. ◀

VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA



Fleming Ikastetxea.

Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)
Lehen Hezkuntza Arratzainen (6-12 urte)
Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 69 1413
012277aa@hezkuntza.net

Matrikulazio epea:
Otsailaren 26tik
Martxoaren
9ra



Erriobea Ikastetxea.

Derrigorrezko Bigarren hezkuntza
Arratzainen (12-16 urte)
Tel.-faxes: 943 69 37 33
012952aa@hezkuntza.net

SANTA LUTZI HEZKUNTZA GUNEA
KALITATEZKO D EREDUA
IRAKASKUNTZA OR XE

SAMANIEGO IKASTETXEA

- ✓ HAUR HEZKUNTZA
- ✓ LEHEN HEZKUNTZA
- ✓ DBH
- ✓ BATXILERGOAK
- ✓ ZIG gela eta LAN HASTAPEN EGOKITUA

943 65 10 63 943 65 13 87
012244aa@hezkuntza.net • 012980aa@hezkuntza.net

PELLO ERROTA herri ikastetxea
ASTEASU -Elizmendi z/g

- Herrian bertatua
- Euskalduna
- Anitza
- Baliabidez eta metodologiak gaurkotua

Tel./faxes: 943 69 22 13 Posta elektronikoa: 012017aa@hezkuntza.net
Haur Hezkuntza: 943 69 29 25 Web orria: www.euskalnet.net/pelloerota

GIZARTEA ▶

Larrialdietan laguntzeko

Beste hainbat zerbitzurekin batera, Herri Babesa taldeak zeregin garrantzitsua dauka larrialdietan; sei boluntario ari dira lanean Tolosako egoitza berrian

JOXEMI SAIZAR

Larrialdi egoeretan herritarrak babestea. Hori da Herri Babesaren helburua, Ertzaintza, Udaltzaingoa, suhiltzaileak, Gurutze Gorria, DYA eta horrelako erakundeekin elkarlanean. Helburu hori lortzeko prestakuntza, plangintza eta material egokia dute bertan aritzen diren boluntarioek.

Pertsona hauek behar duten formazio osoa jasotzen dute: lehen laguntzak, larrialdi medikuntza, orientazioa, bilaketa teknikak, egoitzen autoprotekzioa, suteetan ebakuazioa, ekitaldi publikoetarako prebentzioa...

Urtero herriko arrisku mapa eguneratu egiten dute produktotoxikoak erabiltzen dituzten enpresak, ibaiateratzeko arriskua dauden puntuak, errepideak, trenbideak, lurra mugitzeko arrisku puntuak, merkantzia arriskutsuak dauden lekuak, uholdeak izan daitezkeen tokiak, giza kontzentrazio handiak, suteak izan daitezkeen lekuak, banketxeak, alderdi politikoaren egoitzak, gas sarea, elkarguneak eta beste-lako toki batzuk kokatuz. Mapa horren kopia udaletxera eta Eusko Jaurlaritzara bidali egiten dute larrialdiren bat gertatzen bada bere zerbitzuek nola jokatu jakin dezaten.

Eta material aldetik grupo elektrogenoa, moto-bomba, palak, kaskoak, radio-telefonoak, linternak, e.a. dituzte. Furgoneta baten beharra nabari dute, istripu eta beste larrialdietara joan ahal izateko bere materialarekin, orain arte bere autoetan ibiltzen baitira.

Egoitza berria

Tolosan 1997an hasi zen Herri Babesa lanean. Taldea osatu zutenetako batzuk Remer-etik —Red de Radio Emergencia, estatuko erakundea— datoz, besteak irrati-afizionatuak ziren, batzuk DYAn ere ari dira... Udalarekin harremanetan jarri ziren Oscar Renedo zinegotziaren bidez eta taldea osatzeko baimena lortu zuten. Udalaren menpe dagoen taldea baita. Hasieran taldekideen etxeetan elkartzen ziren, baina duela gutxi Udalak lokal bat egokitu eta utzi die Laramendi kalean. Bertan dituzte bilera eta ikastaro gela, aldagelak, materiala-



Laramendi kalean du egoitza berria Herri Babesa taldeak, Udalak utzita. JOXEMI SAIZAR



Herri Babesa taldeko kide batzuk bere egoitzan lanean. J. SAIZAR

ren bilgetia eta bestelakoak. Eusko Jaurlaritzak eta Udalak emandako ordenagailua, telebista, diapositiba proiektorea eta horrelakoak ere han dituzte. Ikastaroak egiteko ere erakunde horien diru laguntza jasotzen dute.

Gaur egun sei lagun ari dira Herri Babesa taldean: Kote Prados, Josemi Diaz, Jose Luis Etxaburua, Eduardo Calderon, Aitor Sanchez eta David Manso. «Taldea ezagutzera emateko saio batzuk egiteko asmoa

daukagu eta jende berria erakarri nahi genuke, ikastaroetan parte hartzeko eta taldean sartzeko aukera emanez», adierazi dio HITZARI Kote Pradosek.

Lan boluntarioa

Taldekideak boluntarioak izanik, bere lan orduetatik kanpo elkartzen dira lokalean. Gertaera oso larria ez bada behintzat ez dute bere lanpostua uzten. Lan orduetatik kanpora laguntzen dute beharra dagoen

tokietan. Normalean Udaltzaingotik jasotzen dute deia. Beste batzuetan taldekideek ikusi istripua edo gertaera eta joaten dira bertara laguntzera. Irrati emisoraren bidez beste larrialdi zerbitzuekin harremanetan izaten dira. Gurutze Gorria eta DYA osasun zerbitzuek arduratzen dira, sutea itzaltzea suhiltzaileen lana izatea da eta Herri Babesaren zeregina herritarrei bestelako laguntza ematea izaten da: ebakuazioa, kaltetuak alojatzera... Uholdeak, suteak, trafiko istripuak, jende asko biltzen den ekitaldi publikoak... dira bere lan guneak.

Ekitaldi jendetsuetan

«Zerbait gertatuz gero, jendea lehenbaitlehen eta ondo ateratzen laguntzen dugu. Soinean daramagun petoa ikusiz gero,

ZEREGINA

Larrialdi egoeretan beste zerbitzuak laguntzea eta herritarrak babestea da bere zeregina

URTEAK

1997an sortu zen taldea Tolosan eta guztira sei boluntario ari dira lanean egoitza berrian

LAGUNTZA

Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak jasotzen dituzte ikastaro eta materialerako

jendea guregana biltzen da eta guk irtenbidea seinatzen diogu», dio Josemi Diazek. Inauterietako sokamuturretan, duela gutxi kale Nagusian eta Laramendi kalean izandako suteetan, autobioi istripuetan... ikus ditzakezue Herri Babeseko boluntarioak.

«Duela gutxi baserriar batek abisatu zigun Izaskungo merenderotik gertu leizezulo txiki bat agertu zela eta bertan jendea erortzeko arrisku handia zegoela. Joan ginen bertara eta tokia behar bezala seinalizatu genuen», dio Pradosek. Halaber, ekitaldi jendetsuetan, aurretik larrialdi irteerak eta horrelakoak konprobatzen dituzte Herri Babesako boluntarioek.

Herri Babesa taldeak badira hainbat tokitan, Gipuzkoan, besteak beste, Ordizian —harreman handia dute Tolosakoekin—, Zarautzen, Errenterian, Pasaian eta Irunen ere badira. Eta orain Berastegin ere taldea ari dira osatzen, herriko larrialdi plana egin ondoren. Herri Babesa talde guztien arteko federazio bat sortzeko asmoa ere badagoela azaldu dute Tolosakoek.

Laskorain Ikastola
LASKORAIN IKASTOLA

zure aukera

www.laskorainikastola.net

Tel: 943 67 44 28 - 943 69 71 27
Fax: 943 67 54 25
lasko@laskola.net

Kalitatezko heziketa euskalduna eta eleanitza

PAPERGINTZA ▶



Akordiora iritxi ez direnez, bigarren greba eguna gauzatu dute

E. Ezeiza ▶ Papergintzakoek bigarren greba eguna egin zuten atzo. Oraindik ez dira Adegirekin akordiora iritsi eta lanuzteekin jarraitzen dute. Gaur ere ez dute lanik egingo, eta datorren asteko hiru egunetarako ere greba deialdia luzatu dute sindikatuek. UGT, CCOO, ELA eta LABek deituriko greban zazpi paper fabriketatik

bostek hartu zuten parte atzokoan, Sarrio eta Oria paper fabriketan lan egin baitzuten langileetako batzuk. Hori dela eta, gainontzeko enpresetako langileak Belauntzako Sarrio lantegira joan ziren eguerdian. Esan bezala, datorren ostiralean, larunbatean eta igandean ere ez dute lanik egingo. **E. EZEIZA**

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Garikoitz Etxeberriak 8 egun pasa ditu Mitard disziplinan

Tolosako espetxean inkomunikaturik egon ondoren lagun baten bisita jaso zuen

ASIER IMAZ

Garikoitz Etxeberria Ostegun Gizenean atera zuten Mitard disziplinatik, 8 egun isolaturik egon ondoren. Bisita debekua besteak beste kendu ziotenez, hurrengo egunean lagun batena jaso zuen «30 minutu besterik izan ez baziren ere». Emakume presoek aldiz, 20 minutu besterik ez dituzte Frantziako espetxeetan.


Preso politiko lizartzarrek batera, Mitard-ean zeuden beste 5 euskal presoak ere isolamendutik irten direla jakinarazi du Etxeberriaren lagunak. Egundako «gogorak» izan direla aitortu du lizartzarrek, hala ere

euren zeldetan ez bezala elkarrekin hitz egiteko aukera izan omen dute, garraxika bada ere. Izan ere, 9 Mitard baditu Tolosako espetxeak, horietatik 6 euskal presoak beterik egon dira.

Larunbat honetan, euskal preso politiko guztiek bezala, gose greba egingo dute euren protestaldiaren barnean, Bilboko manifestazioarekin bat egin eta bertan jendeak parte har dezala eskatzeko.

Mitard disziplina

Falta disziplinario baten ondorioa da eta Frantzian bakarrik dago Mitard zelda. Presoa zi-



Frantziako Mitard disziplina zelda baten barne planoak. HITZA

gor gela batean guztiz bakarrik sartzen dute. Espetxeak zigor modura erabiltzen du neurri hau, dituen «eskubide apurrrak erabat murriztuaz». Bisitarik gabe geratzen da, objektu pertsonalik gabe, arropa nahi izan ezker ere, eskatu egin beharra dauka nahiz eta jakin garbitzeko aukerarik izango ez duela, kantinan ere ez ezin izango du erosi, beste presoekin harremanak moztu-

tzen zaizkio eta irritati eta telebistatik ere ez du izango. Duxarrik ere ez dauka zeldan sartzen duten presoak garbitzeko eta komuna berriz, irudian ikusten den bezala, «lurraren mailan doan zulo bat da».

Zigorra espetxeak berak ezartzen du egindako falta disziplinarioaren arabera: 1. gradukoa, 45 eguneko zigorra sumpo dezake. 2. gradukoa, 30 egun eta 3. gradukoa, 15 egun.

PILOTA ▶

Bi Txapelketa ezberdin asteburuan

IV. Berria Txapelketan gaur eta bihar jokatuko dute alde batetik Zazpi-Iturririk eta bestetik Aurrerak. Leitzarrek Belateren aurka jokatu-ko dute gaur Altzako pilotalekuan. Bihar berriz amezkatarrek Mallabiakoena kontra jokatu-ko dute 10:30etik aurrera Altzan. Bestalde, Aurrera-Saiaz pilota eskolako Mikel Olaetxea 2 finaletan ariko da. Bihar, berriz, Beotibarren Euskadiko Kluben Txapelketako finalaurreko bi partida izango dira 17:00etatik aurrera.

LEITZA ▶

Aurrera pilota eskolaren norgehiagokak

Arabako X. Irekian, Jon Jaunarena eta bere bikoteak 19-22 galdu zuten ostegunean. Berria Txapelketan berriz, gaur final-laurdenak jokatu-ko dituzte pilotariek. Kadete mailan Jon Jaunarena-Joseba Iraolak jokatu-ko dute. Gaztetan berriz, Aritz Sagastibelza-Aitor Goikoetxea bikoteak eta nagusietan, Gorka Urtasun-Mikel Iriartek. Aurrera Pilota Eskolako leitzarrek, Belate taldekoen aurka jokatu-ko dute. Igandean berriz, Aurrerako Mikel Iriarte eta Aimar Lansalotek 22 urte azpiko mailan, Paz de Zigandaren aurka jokatu-ko dute Leitzako Amazabal pilotalekuan.

IBARRA ▶

'Sua' filma eta Moto Birak asteburuan

Gaur goizeko 09:00etan Ibarrrako plazan elkartuko dira Bermeora joateko Eneko Ariztaren Lagunak kultur elkarteko kideek egiten ari diren *Sua* filma grabatzera. 12:00etan ere azaldu daiteke bertara. Bazkaria, edaria eta jantziak antolatzaileek eraman-ango dituzte. Deialdi zabalera egin nahi dute arrantzaletan paperean parte hartzeko, Erramun Martikorena ere joango delarik. Bestalde, Langostino Moto Kultur Elkarteak antolatu duen 2007ko Moto Birak, bihar izango du bere lehen ibiladiaz. San Bartolome plazan elkartu dira goizeko 09:00etan.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Aulkixoa. Ume bikien kotxea, Inghesina markakoa. Deitu telefono honetara: 678 738745.
Autoa. Ford-Courier salgai (10 urte), IAT gaindituta eta aseguratua. 626 625665.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Gure eskualdeari buruzko albisteak sartzeko aukera eskaintzen dizu gure webgunak Zeuk idatzi izena duen atalean. ▶

LEITZA ▶ KIROLAK

Urrezko txapelaren bila

Rekondok eta Erasunek gaur jokatuko dute Binakako Urrezko Aizkolari Txapelketako finala, Azpeitian

NAIARA GARZIA

Jon Rekondok, Erasun laguna rekin batera, gaur jokatuko du Urrezko Aizkorako finala Aldape eta Atutxaren aurka. Hau ez da, ordea, jokatuko den final bakarra, helduak ere bertan izanen baitira: Nazabal eta Lopez, Larretxea eta Barberenearen aurka ariko dira.

Jon Rekondo leitzarra Urrezko Binakako Aizkorako Txapelketako finalera iristen den lehenengo aldia da. «Honeraino iristearekin pozik nago. Fabori-

toak besteak direla esango nuke, baina gu lan txukuna egiten saiatuko gara», dio leitzarra.

Sei izango dira pasa beharreko probak, finalaurrekoan bezala, baina Rekondok azaldu duen bezala, «egurrak handiagoak izango dira». Lau bikoteak elkarrekin ariko dira, eta proba ezberdinak tartekatuz egingo dituzte.

Txapelketaren orduari dagokionez, telebistatik botako dutenez, horren arabera hartu dute erabakia, «ordu horretan



Jon Rekondo 2006ko Gorritzarango Egunean. M. SOROA

jende gehiagok ikusiko baitu telebista».

Igandean Leitzako saioa irabazi ondoren, joan den asteazkenean elkartu ziren berriro Rekondo eta Erasun txapelketa baino lehen azken aldiz entrenatzeko. «Igandean ere aritu ginenez, asteazkenean nahiko suabe ibili ginen». Gaurko finala irabaziz gero, Rekondoren Binakako Urrezko Txapelketako lehenengo txapela izango litzateke.

Aurtengo Binakako Urrezko Aizkorako Txapelketaren inguruko eztabaidak alde batera utzita, azkenean finala iritsi da eta final guztiak bezala, gaurkoak ere edozeinek adina garrantzia izanen du, bereziki Jon Rekondorentzat, final honetan lehenengo aldia baitu.

PERNANDO BARRENA ▶ BATASUNEN BOZERAMAILEA

«Sarearen ideiarekin ahalegin kolektibo bat irudikatu nahi dugu»

Pernando Barrena bihar ezker abertzaleak antolatu duen ekitaldi politikoan izanen da

NAIARA GARZIA

Bihar Leitzan Fernando Barrena (Berriozar, 1965), Marian Zestaurekin batera Amaiursarearen inguruan mintzatu da.

Zer da Amaiursarea?

Ezker abertzaletik herri sektore guztiari egiten diegun eskaintza bat, hauteskunderi begira hiru aspektu azpimarratu nahi dituen.

Zeintzuk dira azpimarratu nahi dituzuen alderdi horiek?

Alde batetik hauteskunderen testuinguruan ezker abertzaleak ezkerreko proiektua azpimarratu nahi du arlo ezberdinetan. Bestalde, Amaiursarek ezker abertzaletik ere prozesuaren alde egiteko ekimen bat izan nahi du. Eta hirugarrenik, hauteskunde hauek testuinguru berezian ematen dira, duela lau urte indarrean-

jarri zen alderdien legeak indarrean jarraitzen duelako. Amaiursarearen bidez egoera horien salaketa egin nahi dugu, eta aldarrikatu ezker abertzaleko ideietan kokatzen diren herritar guztiak eskubidea izan dezatela euren gogoko zerrendari bozka emateko eta baita hautagai izateko ere. **Zer ekimen jarri dituzue martxan?**

Eskualde buruetan hitzaldiak

egiten ari gara. Honetaz gain herrietan herri programak osatzen ari gara eta herrialde mailan batzorde batzuk eratu ditugu arlo batzuen inguruan ikuspegi orokor bat egiteko.

Sarearen irudia adierazi nahi duzuenaz azaltzeko egokia da, beraz.

Sarearen ideiarekin ahalegin kolektibo bat irudikatu nahi dugu, herriz herri egin behar dena, eta ez modu isolatuan,



I. GARCIA

modu honetan parametro ez-kertiar eta abertzaleetan oinarritzen den komuneko proiektu bat eraikitzeko. ◀

hitza

Harpidedunen txokoa

Egin zaitez harpidedun! ▶

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzue EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratu dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

honetan
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

MUGAR
Nafarroa etorb, 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
ONINAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aduna. Euskal Herriko Sokatira Txapelketa saio bat, pilotalekuan, 17:00etan. Goma gaineko 600 kiloko mailan da neurketa. Zortzi taldek hartuko dute parte, tartean eskualdeko soka tiratzaileak.

Ibarra. Lehen moto birak bihar, plazan, 09:00etan irtingo da.

Ibarra. 09:00etan plazan *Sua* filmeko pasarte batzuk grabatzeko Bermeora joango da autobusa. Pelikulan azaldu nahi izaneko gero, han agertu.

Tolosa. Piñata dantzaldia Iturriza elkartean. 18:00etatik 20:00etara, Jesus organistarekin. Txilaba konpartsak ere parte hartuko du.

Tolosa. Santa Maria parrokian 10:30etik 11:45era otoitz jardunaldiak izango dira Garizuma ospatzeko. Pastoral agenteentzat, eliztarrentzat eta laguntzaileentzat.

ERAKUSKETAK

Alegia. Alegiko jubilatuen tabernan Joseba Mercaderren argazkiak daude ikusgai, martxoaren 11 arte.

Tolosa. Elpuentearen pinturak eta eskulturak marxoaren 3ra arte Aranburu Jauregian. 17:30etik 20:30era, jaiegion eta astelehenetan izan ezik. Antolatzailea: Udak Kultur Batzordea.

Tolosa. *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez* erakusketa Aranburu jauregian. Gaur izango da hura ikusteko azken eguna.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

IRRATIA

Txolarre irrati
(107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Hitza* hegana.

Goiko irrati
(107.0 FM)
 12:00. *korrera*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Udaberria jada buruan

ALTZO ▶ Udalak antolatutako Zuhaitz Egunean hiru astigar landatu zituzten herrian, aguazilaren eta eskolako ikasleen laguntzarekin

ERREDAKZIOA

Altzon udaberria aurreratu egin dela dirudi. Izan ere, Zuhaitz Eguna antolatu zuen bertako Udalak joan den asteazkenean. Eskolako umeen laguntzarekin, astigar gazteen hosto berriak aurki ikusiko dituzte altzotarrak.

Aurtengoan Otsabio eta Eguzkipe etheen artean dagoen zelaian landatu zituzten hiru astigarrek. Nahiz eta zelai maldatsua izan, ederki moldatu ziren han ere haurrak landaketa lanetan.

15:15ean plazan gelditu ziren parte hartzeko prest zeuden guztiekin. Ondoren, landaketa egin zuten Jose Manuel Murua aguazilaren laguntzarekin. Txikiek ere lagundu zuten horretan, lurra hartu eta zuhaitza estaltzeko. Joan den urtean martxoan antolatu zuten Zuhaitz Eguna, baina aurrean aurreratu egin da: «Aguazilak Udalekoei esan zigun komeni zela jada zuhaitzen landaketa egitea, eta horregatik egin genuen asteazkenean», komentatu zuten udaletxeko langileek.

Azkenik Segoretxe tabernan bukatu zuten, bertaratutako guztientzat merienda izan zelarik: xirrimindiak txikienentzat, edatekoak, txokolata, kafea, pastak...

Gutzira 50 bat ikasle dira Altzon eta guztiak, asko gurasoekin batera, han izan ziren arratsaldea pasatzen. Imaz Bertolaria Eskolako haurrek irakasleekin egin zuten joan-etorria. Hiru zuhaitz berri, beraz, Altzoko herrian.



Otsabio eta Eguzkipe etheen artean landatu dituzte aurrean hiru astigarrek. HITZA



gure etxean
euskara
 gure etxean
berria

Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoan baino %10 merkeago.
2. Banaketa DOAN goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat opariak: zozketak eta kupoiak astero, eta urte osoan erabilitzeko hainbat deskontu.
4. Promozioetan abantailak: BERRIAk ateratzen dituen liburak, diskoak eta abar merkeago.

Orain eskaintza berezia

Otsailaren 28a baino lehen harpidetu* gero,

oparia zuretzat

2 LAGUNENTZAKO BAZKARI EDO AFARIA
 zuk aukeratzin duzun huetako sagardotegi batean

GIPUZKOA LARRE GAIN ☎ 943 553 896 HERNANI	GIPUZKOA OTSUA-ENEA ☎ 943 956 894 HERNANI	BIELZARRA IBARRA ☎ 946 731 100 ZORRITZA
ARABA ITURRIETA ☎ 945 445 385 ARABAKO	NAFARRA MARTITXONEA ☎ 948 604 607 ALDICE	

Deitu ORAIN!! **943 30 43 45**

* Urte osoan eguneroko harpidetza izan behar du

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Aiora Beloki Tolosa (Ibarra).
 Zorionak eta muxu asko Oier eta familia guztiaren partetik.